



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 24a

5 ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Nafarroako Gobernuak tren batzuk Altsasun gelditzeko Renfera jotzeko asmorik ote duen itauntzen duen galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Europako Batasunak esne ekoizpenaz dituen araei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- “Convention Bureau” delakoari Iruñeko Auditorioaren gainean eskatu zaion azterketari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Cederna-Garalur Elkarteak kudeatzen dituen hainbat plani buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Hezkuntza eta Kultura Departamentuko organigrama eta postuei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Ikastetxe itunduetako jarduera osagarriengatik kobratzeari buruzko indarreko legeriari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Gelazain izateko hiru lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa. Onartuen eta baztertuen behin behineko zerrenda (15. or.).
- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko bi lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa. Izendapena (15. or.).

F Saila:
GALDERAK

Nafarroako Gobernuak tren batzuk Altsasun gelditzeko Renfera jotzeko asmorik ote duen itauntzen duen galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren Nafarroako Gobernuak tren batzuk Altsasun gelditzeko Renfera jotzeko asmorik ote duen itauntzen duen galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko azaroaren 15eko 60 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 13a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeko kide den Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Gobernuak, Nafarroako tren geltoki batzuetan tren geraldia kendu direla eta, Renfera jotzeko asmorik ote duen itauntzeko. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak Renferekin harremanetan sartzeko asmorik ote duen, 623/622 eta 621/620 trenak, Bartzelonatik Gijonera eta Galiziarara doazenak (eta alderantziz), Altsasuko geralekuan geldi daitezen, 1996ko ekainaren 2a arte egin izan duten moduan.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak jakin zuenean Nafarroatik dabilzan trenen geraldia batzuk aldatzeko aukera aztertzen ari zirela, izkribua bidali zion RENFERi aurtengo maiatzaren 24an (horren kopia eransten da), Altsasu eta Tafallako geraldiei eutsi eta gehiago ere egiteko aukera aurkeztuz, Foru Komunitatetik igarotzen diren trenak ahalik eta zerbitzurik handiena eman dezaten, arrazoizko eskari bati erantzuna emateko.

Idazki horretan ikus daitekeen bezala, 623/622 eta 621/620 trenak, Bartzelonatik Gijonera eta Galiziarara doazenak (eta alderantziz), Tafallan geratzea eskatzen da beren beregi, Altsasun egiten zuen geraldia ordezkatu gabe.

Azaroaren 22ko idazkian erantzun du RENFEK (horren kopia ere eransten da), eta adierazi du tren Tafallan geratuko dela baina Altsasuko geralekuan egiten zuena kendu egingo dutela, erabilera eskasa argudiatuz (eguneko eta tren bakoitzeko bi bidaiarira ere ez zen iristen).

Departamentu honek ez du dudarik egingo geraldia hori berreskuratzeko aukera berriz ere eskatzeko orduan, etorkizunean gerta daitekeen balizko eskaria arrazoizko bidaiari kopurura iristen baldin bada.

2.- Ildo beretik, 312/311 trenak, Hendaiatik Lisboaara doana (Salamankatik gaindi) eta alderantziz, Altsasuko geltokian geldi dadin, Sakana guztiari zerbitzua eman ahal izateko, Altsasuko Udalak berak eskatzen duen bezala, “Puerta del Sol” kentzearen aringarri izateko.

Aukera hori ere aurkeztu zen aurtengo maiatzaren 24an RENFERi bidali zitzaion aipatu idazkian, alegia, aurreko puntuan adierazi den horretan.

Tren hori Altsasun geratzeko aukeraz denaz bezainbatean, aipatu dute ez dutela aintzat hartu, tren horretako bezeroak Frantziatik Portugalera bidaiari, eta alderantziz, egiten duten bidaiariak direlako, hala ere esan esan dute objektiboki arrazoiutako eskaria baldin bada, hurrengo zerbitzu aldaketetan sartzeko proposamena egin daitekeela.

Departamentu honek, aurreko kasuan bezala, ez du dudarik egingo geraldia berri hori egitea berriz ere eskatzeko orduan, etorkizunean gerta daitekeen balizko eskaria arrazoizko bidaiari kopurura iristen baldin bada.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduko 181. artikulua eta hurrengoak xedaturikoa betez.

Iruñean, 1996ko abenduaren 25a

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

(Oharra: Aipatzen diren gutunak Foru Parlamentari jaun-andreen esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorren bulegoan)

Europako Batasunak esne ekoizpenaz dituen araei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Europako Batasunak esne ekoizpenaz dituen araei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko azaroaren 20ko 61 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 13a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuna izateko egin zuen galderari dagokionez, Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren babesean, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak hau dio:

Esne eta esneki sektorea planifikatzeko oinarri eta koordinazioa, birrantolamendua lortzea helburu, Estatuaren eskumena da, Konstituzioko 149.1.12 artikulua araberak.

Hori horrela, Nafarroako Gobernuak esne erreserba bat sortzeko eta nahi izanez gero esne ekoizpena uzteko programa ezartzeko otsailaren 23ko 12/92 Foru Dekretua Estatu legeriarekin bateratu behar izan zen eta 1995eko urtarrilaren 23ko Foru Aginduaren bidez, uzteko plan horren aplikazioaren ondorioz askaturiko erreferentziako kuota, Nafarroako abeltzainen artean banatu baziren ere, Erreserba Nazionalean sartu behar izan ziren.

Hortaz, esne sektoreko kuota sistemari buruzko datu ofizial guztiak Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren menpeko erakundea den FEGAn daude.

Ondoren, orden berean, eginiko galderak erantzuten ditut, banan-banan:

Lehenengo galdera. Tasa osagarriaren araubidearen 95/96 ekitaldia ixtean, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren datu ofiziosoen arabera, Nafarroan 1.332 abeltzainek zuten kuota eskubidea.

Erosleei emateko erreferentziako kopuruak, M.K.ren ehuneko 3,668tan, 150.759.581 kg. egin du eta zuzeneko salmentak, 5.490.296 kg.

2. eta 3. galderak. Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuan ez daukagu eskatzen diren datu horiek. Izan ere, kuota sistema arautzea FEGAn eskumena da, erosleekiko zuzeneko harremanean. Horiek, bere aldetik, ekoizleek kuota gainditzea zaintzen dute, otsailaren 28ko 324/1994 Errege Dekretuaren 2, 3, 4, 5, 6, 7 eta 8 artikuluetan xedatu bezala.

4. galdera. Esne sektorea Estatuaren eskumena denez, sektorea defendatzeko jarduketak Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak zuzentzen ditu, Autonomi Elkarteekiko elkarlanean, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministro andrea buru dela egiten diren Konferentzia Sektorialetan. Gaur egun, zorraren luzapena negoziatzen ari da, baita kuota jabe izanik, kuota gainditu duten abeltzainendako kalteordain edo konpentsazioak ere. Kuotarik izan gabe esnea ekoiztu duten abeltzainek oso-osorik ordaindu beharko dute gaintasa.

Lehenengo kalteordaina enpresa biltzaileetan egiten da eta gainerakoak proportzioz, saiaturiko delarik ekoizle txikiei on egiten.

5. galdera. Esne ekoizpenari dagokionez, Nafarroaren egoera, nahiko baikorra da.

Esnea biltzen duten enpresetatik ateratako datuen arabera, 95/96 kanpainian emaitza hauek izan dira:

Danone: ekoizpena konpentsaturik.
 San Antón: (171.000 kilo konpentsatu; 155.000 kilo konpentsatu gabe), gutxi gora behera, 8,5etik 9 milioi pezeta birtarte.
 Pascual: Konpentsatua.
 Sayoa: Konpentsatua.
 Angulo: Konpentsatua.
 Iparlat: Kuotatik beheitikoa.

96/97 kanpainia ezaugarri berekin azaltzen da. Departamentuak, Abeltzaintzaren Kudeaketarako Institutu Teknikoaren bidez, irekita dauka lehiatila

bat esne kuoten eskualdaketa, errentamendu edo lagapena kudeatzeko, abeltzainen beharrak betetzeko eta Foru Komunitatetik kanpoko kuotak ekartzen saiatzen delarik. Horrela 2.470.868 kilo esne ekarri dira beste Komunitate batzuetatik.

Bestaldetik, Nafarroak, sektorearen gizarte eta ekonomi garrantzia kontutan harturik, uzteko planei eutsi die fondo publikoekin, abeltzaintzako ustiategiak berregituratzeko xedea lortzeko.

Iruñean, 1996ko abenduaren 9a

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

“Convention Bureau” delakoari Iruñeko Auditorioaren gainean eskatu zaion azterketari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Jose Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak “Convention Bureau” delakoari Iruñeko Auditorioaren gainean eskatu zaion azterketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko azaroaren 28ko 65 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 14a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeari atxikitako Jose Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Convention Bureau” delakoari Iruñeko Auditorioaren gainean eskatu zaion azterketari buruz. Hori dela eta, hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak ematen duen erantzuna:

1.- Zein da “Convention Bureau, S.A.” delakoari esleitu zaion bideragarritasun azterketaren xedea?

Bideragarritasun azterketak ideia orokorra emango du Iruñeko eta Nafarroako Kongresu Jauregia eraikitzeko proiektuari buruz eta, zehazki, gizarte eta ekonomi errentagarritasuna bermatzeko zehaztasun arkitektonikoak eta dotazio egokiak

finkatuko ditu, hurrengoan arabera: erabiltzaileen benetako beharrianak, Nafarroako eskaintzaren balizko lehiakortasunak xede izan ditzakeen merkatuen bilakaera, eskura diren baliabide publikoak eta ekinbide pribatuak proiektua gauzatzen izan dezakeen parte hartzea. Horra helburu zehatzak:

- Kongresu Jauregiaren benetako beharrian ebaluatzea.
- Zehaztasun tekniko egokiak eta kokapenik onena finkatzea.
- Sustapen, eraikitze, iraunarazte eta kudeaketa kostuak balioestea.
- Finantzaketa bideak aurreratzea.
- Kudeaketa bideak aurreratzea.
- Prozedura bideak eta epeak aurreratzea

2.- Zer metodologia erabiliko da?

Azterlana bi ataletan egituratzen da:

I. zatia.- Azterlanaren lehenengo atalak proiektua garatzeko esparrua ezarriko du. Foru Komunitatearen gizarte eta ekonomi garapenean duen garrantzia azpimarratuko du, gauzatzea baldintzatzen duten gorabeherak aztertuko ditu, aritu nahi den merkatuak azalera erabiliko ditu, Foru Komunitatearen egoera finkatuko du, Estatuan eta nazioartean dituen lehiakide nagusien aurrean, eta lehiatzeko ahalmena zehaztuko du, dituen indargune eta ahulguneen arabera, xede dituen inguru eta merkatuek erakusten dituzten abagune eta meha-

txuak kontuan hartuta, hala gaur egun nola etorkizunean.

Hori horrela, aurreko azterketatik ateratako ondorioak kontutan, azterlanak epe ertainean lortu nahi diren helburu nagusiak erabakiko ditu, eta horiek erdiesteko estrategia, politika eta ekintza programak.

II. zatia.- Aurreko ataletik ateratako ondorioak aintzat hartuz, bigarren atalak hurrengoak definituko ditu: Iruñeak eta Nafarroak behar duten instalazioaren taxuketa egokia, xede dituzten merkaturen eskariak asetzeko, ekonomi errentagarritasunaren funtsezko berme gisa, eta etorkizuneko erabiltzaileen beharrianak ere, gizarte errentagarritasuna finkatzeko.

Azterlanak zehaztu egingo ditu proiektua gauzatzeko inbertsioen eta etorkizuneko iraupena ziurtatuko duten kudeaketa eta mantenimenduen kostuak, finantzaketa publikoa eta pribatua lortzeko benetako aukerak finkatu, kudeaketa bideak aurreratu eta kontabilitate emaitzak epe ertainera proiektatu, baita proiektua martxan jartzeko ekar ditzakeen ekonomi eta gizarte onura balizkoak ere.

Horietako bakoitzean erabiliko den metodologია honako hau izango da:

I. zatia.- Ari garen aztertze eremuan berezitatea dauden Estatuko eta nazioarteko erakundeek, Kongresu Bulegoak horiekiko harremanak baititu sarri, euren esku dituzten txosten tekniko eta prospektiboak erabiliko dira azterlanaren lehenengo atalak lantzeko. Beraz, Kongresu Bulegoak zenbait teknikari eta adituengandik eskuratuko du informazioa: Turespaña, EFCT (Kongresu Hirien Europako Federazioa), AIPE (Kongresu Jauregien Nazioarteko Elkarte), UIA (Elkarteen Nazioarteko Batasuna), OMT (Turismoaren Mundu Erakundea), eta xede diren merkatuetan adituak diren beste erakundetakoak.

Nafarroari buruzko datuak jakiteko, Kongresu Bulegoak baditu honezkero bere azterlan batzuk. Hurrengoak egingo ditu horiek osatzeko: ekintzen balizko sustatzaileei eta xede-merkatuetan aritzen diren lanbidedunei egiteko bi inkesta, I+G planean

aurreikusitako hiru laborategiak abiarazi eta ondorio nagusiak laburbilduko dituzten jardunaldi teknikoak.

II. zatia.- Bigarren atala lantzeko kontuan izango dira: lehen atalean bildutako datuak eta lehiakide nagusi diren hirietan martxan dauden instalazioetatik ateratako eskarmentua. Hurrengoek ere galdetuko zaie: arkitekto berezituak, Kongresu Jauregietako zuzendari eta kudeaketa-teknikariei, merkataritza departamentuei, erabiltzaile nagusiei eta eszena eta kongresu teknologien erabiltzaile eta aditu garrantzizkoenak. Kokatzeko aukerak aztertuko dira eta proiektuari ekitea ezinezko bihurtzen bada haren ordean erabil daitezkeen guneak ere.

Azkenik, ekonomi eta finantza aholkularitza ere izango da proiektuaren kostua eta errentagarritasuna aztertzeko eta gizarte eta ekonomi eragina balioesteko. Ekinbide pribatuak proiektuan parte hartzeko izan dezakeen interesa jakiteko lehen harremanak ere egingo zaie.

Kongresu Jauregia sustatzeko interesa duten agente nagusien parte hartzea bultzatuko da prozesu guztian zehar.

3.- Udalaren partaidetza kontutan hartuko da haren garapenean?

Kongresu Jauregia sustatzeko interesa duten agente guztiek hartzen dute parte azterlan egitekoan, eta prozesuan parte hartzerik zuzenena izan dezaketean haien lankidetzak dago, funtsean, besteak beste, Iruñeko Kongresu Bulegoa sortu zenetik haren azterlan eta proiektuak taxutu eta garatzen parte hartzen duten udal agenteena. Gauza jakina da "Pamplona Convention Bureau, S.A." elkartearen partaidetza honela banatzen dela: Nafarroako Gobernua (%30), Iruñeko Udala (%30), Nafarroako Merkataritza eta Industri Garbata (%10), Iruñeko Kutxa (%10), Nafarroako Ostalaritza Enpresarien Elkarte (%10), Nafarroako Unibertsitate Publikoa (%5) eta Nafarroako Unibertsitatea (%5).

Iruñean, 1996ko abenduaren 9a

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak: Ramón Bultó Llevat

Cederna-Garalur Elkarteak kudeatzen dituen hainbat plani buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Cederna-Garalur Elkarteak kudeatzen dituen hainbat plani buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko abenduaren 14ko 68 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 17a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Cederna-Garalur Elkartearen jardueri buruz eginiko galderari, idatzizko erantzuna eskatu duenari, dagokionez, Ekonomia eta Ogasun Kontseilariak hau dio:

I.- LEADER II PROGRAMA ETA "NAFARROAKO MENDIALDEA" LANDA BERRIKUNTZARAKO PROGRAMA.

Europako Batzordeak, 1994ko uztailan, jarraitbideak ezarri zituen, kideak diren Estatuek, Leader II landa garapenerako Europako Batasuneko ekimenaren barruan, laguntza-eskabideak aurkeztu ahal izateko.

Finantzaturiko proiektuek errespetatu beharreko irizpide orokor gisa, haien hiru alderdi aipatu ziren: haien berrikuntza, haien ondorio adierazgarria eta emaitzak transferitzeko aukera.

1995ko uztailaren 25ean, Nafarroako Leader II Eskualde Programa onartu zen, 1995-1999 aldirako. Eremu horren barruan, 3.226,4 milioi landa berrikuntzarako programarako eman ziren.

Programa horren jokabideak ekintza batzuk ditu oinarri:

- Landa garapenerako sustengu teknikoak. Horretarako 274,4 milioi erabili ziren badauden landa garapenerako egiturak sendotzeko, ekonomi eta gizarte eragileak konturazteko eta proiektu berritzaileek garatu eta sustatzeko dituzten aukerak aztertzeko.

- Lanbide heziketa eta kontrataziorako laguntzak. Ekintza horretarako 205 milioi erabili ziren, langabetuak eta talde behartsuak prestatzeko eta lanean hasteko.

- Landa turismoa. Ekintza horretan, lehenengo programaren garapena ikusirik, 570 milioi pezeta erabili ziren, sektorearen lehiakortasuna sustatu eta hobetzeko.

- Enpresa txiki, artisau eta hurbilketa zerbitzuendako sustengua. Ekintza horretan 1.140 pezeta erabili ziren.

- Artisau-, ekologi eta kalitateko nekazaritza ekoizpena balorizatu eta merkaturatzea. 645 milioiko dotazioa.

- Ingurugioa zaintzea, bestelako jarduketa esparruekin zerikusia duten ingurugiro proiektuetan aritzen delarik, adibidez, turismoarekin edo kultur ondarea zaintzarekin. Kudeaketan aritzen da, baliabideak kentzeko, etab. Ekintza honetarako, aurrekontu-dotazioa 392 milioi pezetakoa zen.

Ekintza horien finantzaketan, onetsiriko programako finantza-koadroen arabera, Europako Batasuneko, Espainiako (bai Administrazio Zentraleko, bai Foru Komunitateko, bai Toki Administrazio) dirulaguntzak zeuden eta finantzaketa pribatua ere bai.

1995eko azaroaren 28an dirulaguntza osotua aplikatzeko Hitzarmena izenpetu zen, Europako Batasuneko Batzordeak 1995eko uztailaren 27an harturiko C(95) 1309/16 Erabakiaren arabera, Europako Batasuneko Leader II ekimenari buruz. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko Landa Garapen eta Naturaren Babeserako Idazkaritza Nagusiak eta Foru Komunitateko Ekonomi eta Ogasun Departamentuak, alde batetik, eta Cederna-Garalur Elkargoak, bestetik izenpetu zuten Hitzarmena.

Finantzaturiko proiektuak, 1995-1997 aldirako, 1.001.149.000 pezeta egiten du guztira. Horiatarik: 217.202.000 pezeta egiturazko fondoek kargura; 183.641.000 pezeta, Nafarroako Gobernuaren diru-ekarpen gisa; 20.039.000 pezeta, Gobernu Zentralaren diru-ekarpenaren gisa; 48.513.000 pezeta Toki Entitateen diru-ekarpen gisa; eta 531.754.000 pezeta diru-ekarpen pribatu gisa.

II.- "NAFARROAKO MENDIALDEA" LANDA BERRIKUNTZARAKO PROGRAMAREN BETETZE-MAILAREN ORAINGO EGOERA

Cedernari onarturiko LBPrent betetze-mailari dagokionez, esan daiteke, 1996ko urria arte,

Cedernako erabaki organoak 170.092.273 pezeta egiten duten laguntzak ematea onartu duela. Proiektuek 1.375.875.254 pezetako inbertsioa egiten dute. Alegia, orain arte 95-97 faserako aurreikusiriko laguntza guztien ehuneko 40 aplikatuko da, aldi horretarako aurreikuspena ehuneko 38 gainditzen duen inbertsioa delarik guztira.

Nafarroako Gobernuaren diru-ekarpenari dagokionez, finantzatzeko emaniko 183 milioieta-

rik, 1996ko bukaeran, Hitzarmenean aurreikusiriko diru-ekarpenaren ehuneko 80 eman zaio Cederna-Garalurri.

Nafarroako Mendialdea LBParen betetze-mailari buruzko argibideei dagokienez, lauki honek datuak biltzen ditu betetze-mailari buruz, Cederna-Garalurrek emanak, bai eskualdeka, bai luza-
turiko neurrien arabera.

"NAFARROAKO MENDIALDEA" L. B. P. DELAKOAREN BETETZE-MAILARI BURUZKO ARGIBIDEAK				
	BURUTUA	LBP LAG.	BIZ./LAG.	INBERTS./LAG.
GUZTIRA	1.375.875.254	170.092.373	2.202,30	0,12
ESKUALDEAK	BURUTUA	LBP LAG	BIZ./LAG	INBERTS./LAG.
BORTZIRIAK - MALERREKA - BERTIZARANA	94.895.684	22.311.383	1.655,88	0,24
BAZTAN - URDAZUBI - ZUGARRAMURDI	16.851.592	4.515.145	522,34	0,27
LARRAUN - LEITZARAN - ULTZAMA	232.762.671	19.558.871	1.972,06	0,08
SAKANA	83.612.289	17.501.745	933,87	0,21
ERROIBAR - AEZKOA - AURITZ - ORREAGA - LUZAIDE	137.218.247	21.243.306	7.663,53	0,15
AGOITZ - IRUNBERRIKO ARROA	496.621.899	17.848.046	2.927,35	0,04
NABASKOZE - ERONKARIBAR -ZARAITZU	117.745.352	19.742.906	5.533,32	0,17
ZANGOZA - ORBAIBAR	88.947.645	26.031.296	2.727,79	0,29
5b, BESTERIK	92.741.711	6.961.511	1.554,95	0,08
TOKI EKINTZETARAKO TALDEA	14.478.164	14.378.164		0,99
NEURRIAK	BURUTUA	LBP LAG	INBERT./LAG.	
B1 - TALDEAREN FUNTZIONAMENDUA	12.735.364	12.735.364	1,00	
B2 - ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA	1.852.178	1.671.400	0,90	
B3 - LANDA TURISMOA	466.066.172	58.109.263	0,12	
B4 - ENPRESA TXIKIAK ETA ZERBITZUAK	697.030.059	34.752.822	0,05	
B5 - NEKAZARITZAKO EKOIZKINAK	45.568.150	13.823.352	0,30	
B6 - INGURUGIROA	152.623.331	49.000.172	0,32	

III.- TOKI ENTITATEEN JARRERA LEADER II PROGRAMARI DAGOKIONEZ

Ondoren Cederna-Garalurri loturik dauden udalen zerrenda biltzen da, eskualdeka.

Jarduketa eremuko udalen zerrenda

Sakana

2. xedea

Altsasu	Irurtzun
Arakil	Iturmendi
Arbizu	Lakuntza
Arruazu	Olazti
Bakaiku	Uharte-Arakil
Etxarri-Aranatz	Urdiain
Irañeta	Ziordia

Iruñerria

5b xedea

Anue	Goñerri
Atetz	Lantz
Belaskoain	Odieta
Gazteluberri	Olaibar
Ziritza	Ollo
Etxarri	Bidaurreta
Esteribar	Zabaltza
Ezkabarte	
<i>2. xedea</i>	
Ergoiena	

Pirinioaurreko Arroak*5b xedea*

Artzibar	Romanzado
Irunberri	Urraul goiti
Orotz-Betelu	Urraul beiti

2. xedea

Agoitz	Longida
Ibargoiti	Elo
Itzagaondoa	Untziti
Lizoain	Urrotz

Zangozerria-Orbaibar*5b. xedea*

Aibar	Lerga
Barasoain	Lede
Cáseda	Oloritz
Eslaba	Orisoain
Ezporogi	Petilla de Aragón
Galipentzu	Puiu
Garinoain	Zare
Xabier	Zangoza
Leatxe	Untzue
Leotz	Esa

Leitzarlan-Larraun-Ultzama*5b xedea*

Basaburua	Imotz
Ultzama	

2. xedea

Araitz	Goizueta
Arano	Larraun
Areso	Leitza
Betelu	Lekunberri

**Bortziriak-
Malerreka-Bertizarana***5b xedea*

Bertizarana	Oitz
Donamaria	Saldias
Elgorriaga	Doneztebe
Eratsun	Sunbilla
Ezkurra	Urrotz
Ituren	Zubieta
Labaien-Beintza	

2. xedea

Arantza	Lesaka
Etxalar	Bera
Igantzi	

**Erroibar-Auritz-
Orreaga-Luzaide-Aezkoa***5b xedea*

Abaurregaina	Garralda
Abaurrepea	Hiriberri
Aria	Orbaitzeta
Aribe	Orbara
Auritz	Orreaga
Erroibar	Luzaide
Garaioa	

**Baztan-
Urdazubi-Zugarramurdi***5b xedea*

Baztan	Urdazubi
Zugarramurdi	

Erronkaribar-Zaraitzu-Nabaskoze*Objetivo 5b*

Burgi	Nabaskoze
Ezkaroze	Otsagabia
Espartza	Orontze
Galoze	Erronkari
Garde	Sartze
Gorza	Urzainki
Izaba	Uztarroze
Itzaltzu	Bidankoze
Eiaurrieta	

Eskura ditugun argibideen arabera, Nafarroako 265 udaletarik, 125 daude Cederna-Garalurren kideurik. Beste toki entitate batzuk toki ekintzarako bestelako taldeak ari dira antolatzen. Gaur egun, Leader II programaren barruan, gaitasuna lortzeko neurrian daude sarturik. Zehatza izanez, toki ekintzarako beste hiru talde antolatzen ari dira, Lizarrerrian (66 udal bildu dituena), Erdialdean (11 udal bildu dituena) eta Erriberan (30 bat udal bildu dituena). Zifra horiek behin-behinekoak dira, talde berriak oraindik osatu gabe daude eta.

Toki ekintzako talde berriek beren Landa Berrikuntzarako Programak aurkeztu ditzakete 1997-1999 aldian finantzaketa lortzeko, eta halaxe egi-ten ari dira.

**IV.- LEADER II-KO LEHENENGO FASEAN
EMANIKO LAGUNTZAK**

LBPak prestatzen laguntzeko, 1995eko abendu-ko Foru Aginduen bidez, 7,374 milioiko laguntza eman zitzaion Lizarrerriko taldeari; 4,964 milioiko laguntza Erriberakoari; eta 4,512 milioi Erdialdekoari. Orduan emaniko laguntzaren erdia ordaindu zen. % beste 50 LBPak noiz aurkeztuko

diren zain gaude, berehala gertatzea espero duguna.

Laguntza horiek, Cederna-Garalurri emanikoe-kin batera (lehen aipatu ditugun 183,641 milioi horiek) Leader II programako 95/97 faseari emaniko laguntzak dira, Nafarroako Aurrekontuen kargura.

V.- REMOTE, APEF-MYRINA ETA ATON PROIEKTUEN EGOERA.

Cederna-Garalur Elkarteak kudeatzen dituen Remote, Apef-Myrina eta Aton proiektuei dagokie-nez, hona hemen eskura ditugun argibideak:

– Aton proiektua Adapt Europako Batasuneko Ekimenean sartzeko aurkeztu zen. Gobernuak 1996ko uztailaren 29an harturiko Erabakiaren bidez onartu zen eta bertan guztira 480 milioi pezetako gastua aurreikusten da, 1996-1997 aldirako.

Gastu horretatik 107,075 milioi Nafarroako Gobernuaren kontu dira, 240 milioi Europako Gizarte Fondoaren kontu eta 130,929 milioi, finantzaketa pribatukoak.

– Remote proiektua Now Europako Batasuneko Ekimenean sartzeko aurkeztu zen. Gobernuak 1995eko abenduaren 4an harturiko Erabakiaren bidez onetsi zen eta bertan guztira 40 milioiko gastua aurreikusten da 1995-1997 aldian.

Gastu horretatik, 18 milioi Nafarroako Gobernuaren kontu, 20 milioi Europako Gizarte Fondoaren kontu eta 2 milioi finantzaketa pribatukoak.

– Apef-Myrina proiektua, Remote bezala, Europako Batasuneko Now Ekimenean sartzeko aurkeztu zen. Gobernuak 1996ko maiatzaren 27an harturiko Erabakiaren bidez onetsi zen eta bertan guztira 42.659.205 pezetako gastua aurreikusten da 1995-1997 aldian.

Gastu horretatik, 21.329.601 pezeta, Nafarroako Gobernuaren kontu eta 21.329.000 pezeta Europako Gizarte Fondoaren kontu.

Hiru proiektu horietan, ekimenetan aipatzen diren aurreikuspenen arabera, momentu honetan aurreikusiriko fondoaren % 80 ordaindu zaizkio Cederna-Garalurri (Nafarroako Gobernuarenak eta Europako Gizarte Fondoarenak).

VI. FONDOAK LERRO BATZUETATIK BESTEETARA ERAMATEA.

Galderak esan nahi duena bada posible denentz fondoak lerro batzuetara besteetara eramatea, erantzua baietz da. Eramateko, nahitatez, Jarraipen Batzordearen baimena behar da.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarrikoia betetzeko asmoz.

Iruñean, 1996ko abenduaren 12a

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi

Hezkuntza eta Kultura Departamentuko organigrama eta postuei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak Hezkuntza eta Kultura Departamentuko organigrama eta postuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko azaroaren 15eko 60 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 19an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak Hezkuntza eta Kultura Departamentuko organigrama eta postuei buruzko galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak dioena:

1.- Hezkuntza eta Kultura Departamentuan zenbat aholkulari dagoen galdetzen denean, uste izatekoa da ez dela irakaskuntza aholkulariei buruz galdetu nahi, galderaren sarreran "Departamentuko zuzendaritza-taldea" aipatzen delako.

Beraz, logikoa denez, Kontseilariaren Kabineteburuz arituko da, 91/95 legegintzaldia baino lehen eta geroago ere lanpostu hori beteta egon zelako, eta orain ere egoki iritzi zaio lanpostu hori beteta izateari.

2.- Irailaren 26ko 394/1996 Foru Dekretuak ezarri du Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren egitura organikoa, eta sartu dituen aldaketak - Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiaren esparruan bakarrik- Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorriari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoa ezartzeak erakarri duen egoera berriak eskatu ditu.

Ikasketak Antolatu eta Hezkuntza Berriztatze-ko Zerbitzua bitan banatu da: Ikasketa eta Ikastetxeen Antolamendurako Zerbitzua eta Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzua. Horrela, zerbitzuak birantolatu egin dira eraginkortasun handiagoa izateko, era berean lanbide heziketari hezkuntza sisteman duen garrantzia ematen zaiolarik.

Ikasketak Antolatu eta Hezkuntza Berriztatze-ko Zerbitzuak bere gain hartu ditu Ikastetxeen Baimenen eta Erregistroaren Bulegoak eta Eskolatze eta Estatistika Bulegoa, hezkuntza sistemen antolamenduarekin zerikusia duten administrazio unitate guztiak biltzen dituelarik. Beste alde batetik, Zerbitzu horrek badu Gizarte Bermeko

Programen Unitate Teknikoa, Lanerako Prestatu eta Lanbiderako Trebatzeko Unitate Teknikoaren ordez, eta L.H.ko Irakasleen Prestakuntzarako beste bat.

Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzuak, berriz, ikastetxe, irakasle eta ikasleen inguruko ekintzen bidez hezkuntza kalitateari laguntza emateko azpiegitura -teknikoa eta giza baliabideei buruzkoa- osatzen duten atalak bereganatu ditu. Unitate Tekniko berria ere bereganatu du, Hizkuntza Modernoena, gizarteak eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuak horien irakaskuntzan duten interesaren adierazgarri, are gehiago Europaren geroa kontuan hartzen badugu.

Teknologia Berrien Unitate Teknikoa desagertu egin denez, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren egitura organiko berriak aurrekoak baino gehiago dituenak hauexek dira: zerbitzu bat; atal bat, Lan Zentroetako Prestakuntzarena; eta unitate tekniko bat.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren egitura administratiboa finkatzeko prozesua bukatutzat jotzen da.

3.- Hona orduko Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri Departamentuaren zuzendaritza-taldea eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuko egungo zuzendaritza-taldea:

	LEHENGO ZUZENDARITZA TALDEA	EGUNGO ZUZENDARITZA TALDEA
Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri D. Kabineteburua	Ricardo Pita Macaya (Irakasle Funtzionarioa)	Fernando Carbajo López (Irakasle Funtzionarioa)
Idazkaritza Teknikoa	Jesús Javier Ascunce Elizaga (APT)	Jesús Javier Ascunce Elizaga (APT)
Giza Baliabideen Atala	Enrique Jaurrieta Linzoain (Irakasle Funtzionarioa)	Jesús María Laguna Peña (Hezkuntzako Ikuskatzailea)
Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia	Angel Urtasun Uriz (Irakasle Funtzionarioa)	Santiago Arellano Hernández (Irakasle Funtzionarioa)
Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua	Santiago Lasaos Villanua (Hezkuntzako Ikuskatzailea)	Antonio Jaurrieta Ezquerro (Hezkuntzako Ikuskatzailea)
Plangintza eta Inbertsio Zerbitzua/ Inbertsio Zerbitzua	José Morán Gonzalez (Irakasle Funtzionarioa)	Trinidad Eslava Muruzabal (Irakasle Funtzionarioa)
Pedagogi Berrikuntzarako Zerb.	Juan Antonio Andion Gastón (Irakasle Funtzionarioa)	Manuel Castillo Molina (Irakasle Funtzionarioa)
Ikasketa eta Ikastetxeen Antol. Zerbitzua		Javier María Navallas Rebole (Hezkuntzako Ikuskatzailea)
Euskara Zerbitzua	Juan José Equisoain Beriain (Irakasle Funtzionarioa)	Valentina Iriberrri Bengoechea (Irakasle Funtzionarioa)
Unibertsitateko Irakaskuntza eta Ikerketa Zerbitzua	José Blasco Canet (Unibertsitateko Irakaslea)	Pedro Pejenaute Garde (Irakasle Funtzionarioa)
Kultura Zuzendaritza Nagusia	Tomás Yerro Villanueva (Irakasle Funtzionarioa)	Tomás Yerro Villanueva (Irakasle Funtzionarioa)
Kultur Ekintza Zerbitzua	José Ortega García (Irakasle Funtzionarioa)	José Ortega García (Irakasle Funtzionarioa)
Ondare Historikoaren Zerbitzua	Carlos Idoate Ezquieta (Funtzionarioa. Agiritegi eta Ondare Dokumentaleko Goi Mailako Titul.)	Carlos Idoate Ezquieta (Funtzionarioa. Agiritegi eta Ondare Dokumentaleko Goi Mailako Tituluduna)
Nafarroako Kirol eta Gazteriaren I.	Vicente Ripa González (Irakasle Funtzionarioa)	(Ez dago Departamentuari atxikirik)
Kirol Zuzendariorde	José Ignacio Pérez Goñi	
Gazteri Zuzendariorde	Lourdes Rodríguez Collado	
Hizkuntza Politikarako Zuzend. N.	(Ez zegoen Dep.ari atxikirik)	Fernando Pérez de Viñaspre (Irakasle Funtzionarioa)
Programazio eta Ikerketa Zerbitzua	José Manuel Lagarra Martínez (Irakasle Funtzionarioa)	José Manuel Urroz Barasoain (Irakasle Funtzionarioa)
Euskararen Normalizazio eta Sustapen Zerbitzua	Juan Ramón Elorz Domezain (Hezkuntzako Ikuskatzailea)	Juan Ramón Elorz Domezain (Hezkuntzako Ikuskatzailea)

4.- "Plangintza" hitzak ez dio funtsezkorik ezer gehitzen "Inbertsio Zerbitzua" izenari, Aurrekontu Legearen eta arrazoizko irizpideen arabera egiten den inbertsio orok derrigorrezko duelako plangintza, aipatu plangintza zerbitzu orori dagokion zeregina dela ez aipatzeagatik.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduko 181. artikulua eta hurrengoak xedaturikoa betez.

Iruñean, 1996ko abenduaren 9a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Ikastetxe itunduetako jarduera osagarriengatik kobratzeari buruzko indarreko legeriari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak ikastetxe itunduetako jarduera osagarriengatik kobratzeari buruzko indarreko legeriari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko azaroaren 21eko 62 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Carlos Cristóbal García Foru Parlamentariak ikastetxe itunduetako jarduera osagarriengatik

kobratzeari buruzko indarreko legeriari buruz egin duen eta idatziz erantzun behar den galdera dela eta, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak ondoko erantzun hau jakinarazi nahi du:

1.- Eskola jarduera osagarriak, eskolatik kanpoko jarduerak eta ikastetxe itunduetako zerbitzu osagarriak arautzen dituen araua urriaren 20ko 1694/1995 Errege Dekretuan dago, 95/12/1eko E.A.O.n argitarata.

2.- Aipatu arau horren arabera, ez da baimenik behar eskolatik kanpoko jarduerengatik edo eta jarduera osagarriengatik diru-kopururik kobratzeko.

Zerbitzu osagarriei dagokienez, orain arte baimendu diren prezioak honako hauek dira:

Ikastetxearen izena	Zerbitzu osagarriak	Kostua
Nuestra Señora de Lourdes	Eskolako jantokia	2.500 pta/ikaste/aste
Paz de Ziganda	Eskolako jantokia	7.500 pta/ikaste/hilabete
	Eskola-garraioa	1.540 pta/ikaste/hilabete
	Burlata	3.015 pta/ikaste/ hilabete
	Kabinete mediku edo psikopedagogikoa	1.500 pta/urte
La Presentacion	Eskolako jantokia	9.975 pta/ikaste/hilabete
	Eskola-garraioa	6.850 pta/ikaste/hilabete
Colegio Santa María La Real	Eskolako jantokia	725 pta/egun
	Eskola-garraioa	6.350 pta/hilabete
	Kabinete mediku edo psikopedagogikoa	2.685 pta/urte
La Compasión	Eskolako jantokia	500 pta/ikaste/egun
	Eskola-garraioa	3.000 pta/ikaste/hilabete
Sagrado Corazón	Eskolako jantokia	500 pta/ikaste/egun
	Eskola-garraioa	3000 pta/ikaste/hilabete
Santa Luisa de Marillac	Eskolako jantokia	11.000 pta/ikaste/hilabete
Amor de Dios	Eskolako jantokia	10.000 pta/ikaste/hilabete
Colegio Irabia	Eskolako jantokia	110.500 pta/ikaste/urte
	Eskola-garraioa	64.000 pta/ikaste/urte
	Kabinete mediku eta psikopedagogikoa	2.300 eta (+) 9.500 pta/ikaste/urte
Notre Dame	Eskolako jantokia	11.005 pta/hilabete (5 egun)
		8.835pta/hilabete (4 egun)
Regina Pacis	Eskolako jantokia	10.000 pta/ikaste/hilabete
	Kabinete mediku eta psikopedagogikoa	150 pta/ikaste/hilabete
Miravalles	Eskolako jantokia	1 mota: 11.550 pta/ikaste/hilabete
		2 mota: 8.400 pta/ikaste/hilabete
		3 mota: 3.100 pta/ikaste/hilabete
	Eskola-garraioa	1 lerroa: 9.500 pta/ikaste/hilabete
		2 lerroa: 5.500 pta/ikaste/hilabete
El Redín	Eskolako jantokia	a mota: 13.265 pta/ikaste/hilabete
		b mota: 10.900 pta/ikaste/hilabete
		c mota: 3.200 pta/ikaste/hilabete
	Eskola-garraioa	a mota: 9.925 pta/ikaste/hilabete
		b mota: 7.500 pta/ikaste/hilabete
		c mota: 5.670 pta/ikaste/hilabete
M.M. Misioneras	Eskola-garraioa	11.600 pta 4 bidaia ikaste/2 hilabete
		8.400 pta 2 bidaia ikaste/2 hilabete
Santo Angel	Eskolako jantokia	11.743 pta/ikaste/hilabete
	Eskola-garraioa	7.000 pta/ikaste/hilabete
Colegio Calasanz	Eskolako jantokia	11.000 pta/ikaste/hilabete
	Eskola-garraioa	8.000 pta/ikaste/hilabete
San Ignacio	Eskolako jantokia	12.564 pta/ikaste/hilabete
	Eskola-garraioa	11.600 pta 4 bidaia ikaste/2 hilabete
		8.400 pta 2 bidaia ikaste/2 hilabete
	Kabinete mediku edo psikopedagogikoa	1.000 pta/ikaste/hilabete
Colegio San Francisco Javier	Kabinete mediku edo psikopedagogikoa	700 pta/ikaste/hilabete
Labiaga Ikastola	Eskolako jantokia	300 pta/ikaste/egun
Colegio Sagrado Corazón	Eskolako jantokia	500 pta/ikaste/egun

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1996ko abenduaren 11
Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús
Javier Marcotegui Ros

G Sails:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Gelazain izateko hiru lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa

Onartuen eta baztertuen behin behineko zerrenda

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Gelazain izateko hiru lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzeko deialdirako eskabideak aurkezteko epea bukaturik, deialdiko 4. Oinarriarekin bat, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzen da ondoren.

Onartuak:

ADOT LOPERENA, María Angeles
MONEO MARTINEZ, María Inés
URMENETA MARIN, Olga

Baztertuak:

Bakarra ere ez

Interesatuek, zerrenda hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik 5 egun naturaleko epearen barrenean, egoki deritzoten erreklamazioak aurkezten ahalko dituzte.

Iruñean, 1996ko azaroaren 22a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko bi lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa

Izendapena

1996ko azaroaren 1eko 133 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko bi lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzeko, horietako batek ezinbesteko duelarik euskaraz jakitea, deialdiko zazpigarren Oinarriko 3. atalak ezartzen duenarekin bat etorritik, lehiaketa bukaturik eta izangaien zerrenda ordenatua, bakoitzak lortu duen guztizko puntuazioarekin, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, ERABAKI DUT:

Lehena.- Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko lekualdatze-lehiaketaren lanpostu hutsa, euskaraz jakitea derrigorrezko ez duena, Lourdes Irigoyen Olaiz andreari esleitzea, deialdian punturik gehien lortu duen izangaia delako.

Bigarrena.- Euskaraz jakitea derrigorrezko-zuen kontu-ikuskaritzako teknikari postua eman gabe uztea, izangai bakar batek ere ez duelako gairiditu euskararen ezagutza-maila nahikoa egiaztatzeko proba.

Hirugarrena.- Ondoren aipatzen diren izen-abizenak eta jaiotze-data dituen izangaia Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko funtzionario izendatzea, kontu-ikuskaritzako teknikari gisa:

IRIGOYEN OLAIZ, Lourdes, 1958ko azaroaren 11.

Laugarrena.- Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta Lourdes Irigoyen Olaiz andreari jakinaraztea, jakinaren gainean izan dadin.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 15a

Lehendakaria: Javier Tuñón San Martín

